

BERMEO. Behin-behineko lokala dala iragarri eben alderdiko ordezkariak



Alkartetxea zabaldu dau Eusko Alkartasunak Gaztelun

Bermeko Eusko Alkartasunako kideek herriko Alkartetxea inauguratu eben, joan dan abenduaren 30ean, iluntzean. Lokal barria Gazteluko enparantzan zabaldu dabe, *Takonen* taberna lehen egon zan lekuan. Eusko Alkartasuna alderdi politikoak behin behineko egoitzatzat hartu dau Gazteluko lokala. Inaugurazino ekitaldia eurpean

egin eben; baina, halandabe, hainbat lagun batu ziran bertan. Sabin Arana diputaua be agertu zan, baita, Bermeoko Alkartetxearen inaugurazino egunean. Ikurrina jaso eta gero, Euskadiko goratarrea abestu eben Eusko Alkartasunako lagunek. Ostean, pintxo jana egin eben, Gazteluko enparantzan.

GERNIKA-LUMO. Igongailua be ipinten dabilz

Espedienteak kontsultetako lehen baino sistema arinagoa ipini dau martxan Udalak

I.A.

Gernika-Lumoko Udalak espedienteak kontsultatu ahal izateko sistema barria martxan ipini dau. Lehengo aldean, askozaz be arinagoa da dokumentuak kontsultetako oraingo sistema. Izan be, datu guztiak batu eta behar dan moduan ordenatu izan dabez informatikazko programa baten bitartez.

Oraindik aurrera, orduan, Gernika-Lumoko udal beharginak espedienteen karpitetara segiduan sartu ahal izango dira. Datu basean sartu ezkerro, espediente bakotxaren gestinoa zelan doan konprobatu ahal izango dabe. Hau da, dokumentua tramitetea jagokon saila eta idatziaren gestinoa egiten hasi ziran eguna jakin ahal izango dira, momentuan.

Lehen, barriz, behar bardina egiteko, sailetik sailera ibili be-

har izaten ziran Udal beharginak. Bitartean, denpora asko emoten eben informazioa herriarren eskura ipini arte.

Udaletxeko igongailuaren obrak laster amaituko dabez

Urte barriagaz batera, aldaketa batzuk egin gura izan dabez Gernika-Lumoko udaletxean. Izan be, igongailua ipinten dabilz, udaletxeko solairuen arteko gorabeherak egiterakoan, erreztasunak emotekotan herriarrei.

Gernika-Lumoko udaletxearen igongailuak Arteakalea aldetik izango dau sarrerea. Igongailuari lekua egiteko, leku alaketak egin behar izan dabez, edegi barruan. Igongailuaren beharrak 104.661 euroko kostua eukiko dabe. Aurrekontuaren erdia Gernika-Lumoko Udalak ordainduko dau, eta beste erdia, Eusko Jaurilaritzak.

ESKUALDEA. Bermeo eta Gernika-Lumo herrietako jolas guneak izango dira nagusiak

Iratxe Astuy

Udako oporrekaz batera, Gabonetako jai egunak izaten dira umeentzako pozgarrienak. Olentzeroak itxitako opariak hartuz gero, Hiru Erregeak zer ekarriko ete deusien zain dabilz umeak, egunotan. Erregeen kabalgatea heldu bitartean, Gabonetako haur parkeak zabalduko dabez, eskualdeko hainbat herrietan.

Herri bakotxean, umeen gozamenarako mota desbardineko kultur ekintzak gertatu dabez. Guztien horreen artean, Bermeo eta Gernika-Lumoko jolas parkeak izango dira nagusiak. Bermeoko umeentzako parkea gaur bertan zabalduko dabe. Zezen mekanikoa, balea, gaztelua, ludoteka txikia eta beste horrenbeste jolasez beterik egongo da Lamera parkea, egun osoan. Euria balitz, barriz, Artza Udal frontoian zabalduko dala parkea, iragarri dabe Udal Kultur Saileko arduradunek. Goizean, 12:00etatik 14:00ak arte izango da jolasean ibilteko tarte. Arratsalde, 16:30etik hasita 19:30era bitarte zabalduko dabe parkea.

Gernika-Lumon, oster, gaurtik hasita Errege egunera bitarte egongo da Gabonetako umeen parkea zabalik. Merkatu plazan jarriko dabe jolas gunea. Goizeko 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:30etara izan-

Jolasteko aukera ederra zabalduko dabe umeentzat

Gaurtik aurrera, olgetan ibilteko parkeak martxan ipiniko dabez



Eskualdeko umeek hainbat jolasez disfruteteko aukerea eukiko dabe, egunotan, euren herrietan.

go da parkearen ordutegia. Hilaren 6an, 17:00etatik 20:30etara egongo da zabalik.

Keima, kirola eta meatzaritza taldearen ardura izango da Gernika-Lumoko umeen parkea.

Hainbat ekimen gertaiko dabez alkarteko begiraleek, etxe-ko txikientzako.

Ajangizen, bestalde, umeentzako eskulan tailerrak eta jolasak ipiniko dabez, gaur

10:30etik aurrera, herriko plazan. Busturiako Kultur Etxean, *Scooby-Doo* tituludun umeentzako pelikulea eskainiko dabe, 17:00etan. Jarraian, 2002ko herriko jaien bideoa ipiniko dabe.

LABURAEAN

BERMEO

Arrain kontserben arloko interpretazino zentrua zabaltzeko diru saila onartu dau Aldundiak

Hasi barri dan urterako notizi pozgarria hartu dau Bermeoko Udalak. Izan be, 2003. urterako onartutako aurrekontuen barruan, arrain kontserben interpretazino zentrua zabaltzeko diru sail bat emotea erabagi dau Bizkaiko Foru Aldundiako Gobernu Batzordeak. Interpretazino zentrua non zabaldu pentsatu behar dabe Bermeoko Udal ordezkariak, orain. Horretarako leku eta lokal aproposenak aztertzen hasi beharko dabe, urian. Bizkaiko Foru Aldundiak 75 milioiko aurrekontua gordeko dau Bermeoko arrain kontserben interpretazino zentzurako.

Uriko argazki zaharrak erakutsiko dabez, bihartik hilaren 15era arte

Urte barriagaz batera, erakusketa barria zabalduko dabe, bihartik aurrera, Nestor Basterretxea Kultur aretoan. Argazki erakusketa horretan, antzinako hainbat herriko irudi bitxiak ikusi ahal izango dira. Udal artxiboko arduradunek gertatu dabe, eta 15era arte egongo da ikusgai.